



# MARRAZKI LEHIAKETA

## OLENTZERO ETA MARI DOMINGI 2020

Urtero bezala, abenduaren 24an Olentzero eta Mari Domingi Laudio bisitatzeko irrikan daude; aurten, ordea, ezingo dira gure ondoan egon, kaleetan kalejiran, kantatzen edo argazkiak egiten. Hala ere, bereziki gustuko dute gure artisten presentzia gertu sentitzea, hori dela eta, aurten ere **MARRAZKI LEHIAKETA** antolatuko dugu.

Olentzero eta Mari Domingiren festa prestatzen ari den taldeak (besteak beste, gure ikastola ere dago tartean) **MARRAZKI LEHIAKETA**n parte hartzeko gonbidatzen zaitu. Hauek dira oinarriak:

- **ZER EGIN BEHAR DUZU PARTE HARTZEKO?** Sortu irudi bat, eta, epaimahaiak hala erabakiz gero, irudi hori Olentzero eta Mari Domingiren jaiaren kartelarena izan liteke.
- **ZER EGON BEHAR DA IRUDI HORRETAN?** Gutxienez Olentzero eta Mari Domingi egon behar dira; hortik aurrera, zure sormenak, orijinaltasunak eta senak iradokitzen dizutena.
- **NOLA EGIN BEHAR DUZU IRUDIA?** Hori librea da: A3 ala A4 bat, eskuz ala ordenagailuz, kolorez ala zuri-beltzez, errotuladoreak ala mar-goak erabiliz... Zuk zeuk aukeratu dezakezu nola egin.
- **NORK HAR DEZAKE PARTE?** Haur Hezkuntza edo Lehen Hezkuntzako (2-12 urte) ikaslea bazara, aukera duzu zure proposamena aurkezteko.
- **NON AURKEZTU BEHAR DIRA IRUDI PARTE-HARTZAILEAK?** Marrazkiak Ikastolako idazkari-



tzan jasoko dira. Garrantzitsua: parte-hartzaileek ez dute euren izena idatziko atzealdean, baizik eta telefono-zenbaki bat eta bere adina, epaimahaiak, hala beharko balu, eurekin harremanetan jartzeko.

- **NOIZ ARTE DAGO DENBORA PARTE HARTZEKO?** Gehienez jota, azaroaren 23ra arte. Egun horretan, Ikastolako epaimahaiak aurkeztu diren lan guztiak bilduko ditu.
- **ZER LORTUKO DU LEHIAKETAKO IRABAZLEAK?** Ikastetxe bakoitzeko eskola-materiala erosteko 50€ko bina bale irabazi ahal izango dute parte-hartzaileek. Horrez gain, ikastetxe guztietako irabazleen artean aukeratuko den irudia Olentzero eta Mari Domingiren jaiaren kartelean agertuko da.

Anima zaitetz!! Olentzero eta Mari Domingiren festaren kartela zurea izan daiteke!!